



Zuzendari hori,

Ikasturte hasiera hau zaila da denontzat, eta horren aurrean zalantzak sortzen ari diren gaiei buruzko argibideak bidaltzen dizkizuet.

Gai horien artean, zentroetako osasun-segurtasunaren kudeaketari buruzko guztiak daude. [Jarduera-protokolo orokor bat](#) ezarri da, ekainetik ezagutzen dena, eta [Protokolo Osagarri](#) batekin eguneratu da. Dokumentu bizia da, eta eguneratzen eta unean uneko osasun-egoerara egokitzen joango gara. Eguneratzeak dagokion datarekin argitaratuko dira webgune berean; beraz, komeni da maiztasun jakin batekin berrikustea. Ildo horretan, Protokolo Osagarrian sartu egin da **Lehen eta Bigarren Hezkuntzako maila guztietan talde egonkorak ezartzeko beharra**, kontuan hartuta azken etapa horretan ikasgaien hautazkotasunak salbuespena ekarriko duela egoera horretan.

Halaber, joan den ostiralean zirkular bat bidali zen ikasleen artean egon daitezkeen kasu positiboen kudeaketari buruzko alderdi zehatzekin. Horri dagokionez, honako hau adierazi behar da:

Estimada Dirección,

Ante el escenario en que nos encontramos en este inicio de curso, difícil para todos, os envío aclaraciones referidas a las cuestiones que están generando mayor número de dudas.

Entre estas cuestiones se encuentran todas las relativas a la gestión de la seguridad sanitaria en los centros. Se ha implementado un [Protocolo General de Actuación](#), conocido desde junio, el cual se ha actualizado con un [Protocolo Complementario](#). Se trata de un documento vivo, que iremos actualizando y adecuando a la situación sanitaria de cada momento. Las actualizaciones se irán publicando con la fecha correspondiente en la misma web, por lo que conviene revisarla con cierta frecuencia. En este sentido, se ha incorporado al Protocolo complementario la necesidad de establecer **grupos estables en todos los niveles de Primaria y Secundaria**, teniendo en cuenta que en esta última etapa la optatividad de materias implicará excepcionalidad en esta situación.

Asimismo, el pasado viernes se envió una circular con aspectos concretos relativos a la gestión de posibles casos positivos entre el alumnado. Sobre este particular hay que señalar que:



1. ESletako erreferenteek zein erreferentziako ikuskariak berehala behar dute ikastetxeko Covid arduradunaren eta zuzendaritzaren kontaktua. Bi kasuetan, posta elektronikoa eta telefono-zenbakia.

Bi pertsona horiek bakarrik jarri behar dute harremanetan dagokion ESiko erreferentearekin, eta **ikasleen artean baieztatutako kasu positiboak jakinarazteko soilik**, Protokolo Osagarriaren IV. ataleko (Ikastetxeen kudeaketa) 4. puntuan jasotzen den bezala.

Gogorarazten da segurtasuneko laguntzaileak irakaskuntza-arduraldiko orduak dituela, eta, beraz, COVID arduradunaren eginkizuna har dezakeela. Era berean, adinagatik eskola-orduak murriztuta dituzten irakasleek ere lagundu dezakete zeregin horretan.

2. Ikastetxeko langileen artean kasu positiboak kudeatzeko, [Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua](#) erabiliko da.

1. Los referentes de las OSIs y su inspector/a de referencia necesitan urgentemente el contacto de la persona Responsable Covid del centro, así como de la dirección. En ambos casos, correo electrónico y número de teléfono.

Solo estas dos personas se deben poner en contacto con el o la referente de la OSI correspondiente, y **única y exclusivamente para la comunicación de casos positivos confirmados entre el alumnado**, tal como se recoge en el apartado *IV Gestión en los centros*, punto 4 del Protocolo Complementario.

Se recuerda que la colaboradora o colaborador de seguridad cuenta con horas de dedicación docente, por lo que puede asumir la función de Responsable COVID. Asimismo, el profesorado con reducción de horario lectivo por motivos de edad, puede colaborar también en esta tarea.

2. La gestión de casos positivos entre trabajadores/as del centro se realizará a través del [Servicio de Prevención de Riesgos Laborales](#).



3. Eskema gisa erantsi dugu V. puntuan (Protokolo Osagarriaren kasuen kudeaketa) jasotako eguneraketa, 2. eta 3. puntuetan adierazitakoarekin bat, bai eta azalpen-infografiak ere, ikastetxean zabaltzeko.

3. Adjuntamos a modo de esquema la actualización del punto V. *Gestión de los casos* del Protocolo Complementario de acuerdo con lo expresado en los puntos 2 y 3, así como infografías explicativas para su difusión en el centro.

Bestalde, ikasleen eta familien datuak kudeatzeko egungo egoerak inoiz baino gehiago eskatzen du matrikula-aplikazioan eskatutako informazio-eremu guztiak beteta eta eguneratuta izatea (bi gurasoen datuak, telefonoak, posta elektronikoak, posta-helbideak, etab.).

Por otro lado, la actual situación de gestión de datos de alumnado y familias, exige más que nunca tener en la aplicación de matrícula todos los campos de información requeridos cumplimentados y actualizados (datos de ambos progenitores, teléfonos, correos electrónicos, direcciones postales etc.).

Azkenik, nahiz eta Ikuskaritzak ere horren berri emango duen, komeni da ikastetxeek ahalik eta lasterren EED-a ixtea, sortutako ikasle-talde guztien osaera jasota gera dadin.

Finalmente, aunque Inspección también notificará al respecto, conviene que los centros cierren el DAE lo antes posible para dejar constancia de la composición de todos los grupos de alumnado generados.

Adeitasunez,

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a.

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Maite Alonso Arana

Hezkuntza sailburuordea / Viceconsejera de Educación